



EKINTZEN AURKIBIDEA

- **TANTA BAT ERE EZ**

Ez utzi joaten 2. or.

- **NEURRIZKO JARIOA**

Jar itzazu ura aurrezteko tresnak 4. or.

- **MEZUA BOTILA BARRUAN**

Ondo kontrolatu komuna 6. or.

- **HOTZ ETA BETETA**

Ur hotzez garbitu, garbigailua goraino beteta eta xaboi gutxirekin 8. or.

- **EURIA ITSASOA BAINO HOBEA**

Aurreztu ura gorputza garbitzean 10. or.

- **APUR BAT ASKI DA**

Aurreztu espazioa garbiketa-tresnen armairuan 12. or.

- **ONENAK, BERTOKOAK**

Ura, neurri-neurrian 14. or.

- **OHARRAK**

Idatzi hemen zure oharrak 16. or.



TANTA BAT ERE EZ



zergatik ekin?

Egoera txarrean dauden hodi eta txorrotetatik ura galtzea ez da inorentzat onuragarria, eta uste dugun baino ur gehiago galtzen da alferrik horrela. Txorrota bat ordubetez tanta-jario badago, gutxi gorabehera litro bat ur joaten da kainu-zulotik. Urtebetean, 8.760 litro galduko lirateke.

EKINTZA:

EZ UTZI JOATEN

- ⇒ Erabiltzen ez dituzunean, txorrotak ondo itxita daudela ziurtatu beti. Palanka-txorrotak erabiltzen errazagoak dira, tanta-jarioak eragozten dituzte eta, ur hotza eta beroa nahastea errazten dutenez, energiaren kontsumoa gutxitzen dute.
- ⇒ Ikuskatu etxeko ur-hodiak: bila itzazu tanta-jarioak, komuneko tangako ur-ihesak (janarirako koloratzaile apur bat bota eta begiratu ur koloreztatua isurtzen den) eta horma zein zokoetako hezetasunak.
- ⇒ Aurkitutakoan, saia zaitez zeuk konpontzen, tresna batzuekin. Uste baino errazagoa dela ikusiko duzu.
- ⇒ Ur-ihesa zeure kabuz konpontzeko gai ez bazara, deitu iturginari.

AURRERAPENA

LURRARENTZAT

UR-IHESAK KONPONTZEN BADITUGU, UR EDANGARRI GEHIAGO IZANGO DUGU IBAI ETA URTEGIETAN BIZI DIREN ANIMALIA URTARREKIN PARTEKATZEKO.



AURRERAPENA

ZURE ETXEARENTZAT


URA ORAINDIK EZ DA BALIABIDE GARESTIA, BAINA IHESAK ERAGOZTEAK ERAGIN ZUZENA DU URAREN FAKTURAN. GAINERA, AUZOKOEN ETXEETAN UHOLDEAK ERAGITEKO ARRISKUA EZABATUKO DUGU.

URA BANATZEKO SAREA

Gizakiak egunean 2 litro ur inguru behar ditu bizitzeko. Hala ere, gure gizartean, etxe askotan pertsonako 250 litro baino gehiago kontsumitzen dira egunero. Hainbeste ur erabiltzen dugunez, ur-erreserba handiak eduki behar ditugu, beti ura izango dugula ziurtatzeko.

Espainiako Estatuan, kontsumitzen den ur gehienaren jatorria lurrazaleko urak dira (urtegiak eta ibaiak). Gure etxeetara iritsi baino lehen, urak bide luzea egiten du tamaina desberdineko hodiz osatutako sare zabal batean barrena. Batzuetan, kilometro askoko bidea egin behar izaten du. Etxean bertan ere, urak metro ugari egiten ditu txorrotatik irten baino lehen. Ibilbide horretan, ur-galera handiak gertatzen dira eta, gehienetan, ura alfer-alferrik galtzen da, inori onurarik egin gabe.

Kalkulurik baikorrenen arabera, banatzen den ur guztiaren heren bat galtzen da hodietan. **Garapen Jasangarriaren EAEko 2002-2020rako Ingurumen Estrategiaren** helburua hau da: 2002. urteko datuak oinarritzat harturik, 2012. urterako ur-horniduran gertatzen diren galerak %20 gutxitzea.



NEURRIZKO JARIOA



zergatik ekin?

Gehienetan, behar dugun baino ur gehiago ateratzen da etxeko txorrotetatik. Ekintza honen bidez, etxeko ur-kontsumoaren eta, horrekin batera, energia-kontsumoaren eraginkortasuna handituko duzu. Zure bizimoduak ez du inolako aldaketarik izango: beti bezala dutxa hartzen edo ontziak garbitzen jarraituko duzu. Baina, norbaitek magia egin balu bezala, zeregin horietarako kontsumitzen duzun ur kopuruak behera egingo du. Izan ere, ura airearekin nahastean, presioa handitzen da eta ur gutxiago behar da.

EKINTZA: JAR ITZAZU URA AURREZTEKO TRESNAK

- Iturgindegia batera joan eta ur-kontsumoa gutxitzeko sistemei buruzko informazioa eskatu. Instalatzeko, zure txorrotetatik ura zenbateko presioarekin ateratzen den jakin behar duzu.
- Hasteko, jar itzazu gomazko edo plastikozko atomizagailuak harraskako txorrotetan. Ezin merkeagoak dira, baina ur asko aurrez dezakezu ontziak garbitzean.

AURRERAPENA

LURRARENTZAT

ATOMIZAGAILUAK ERABILIZ GERO, %30 UR GUTXIAGO KONTSUMITZEA LOR DEZAKEZU.

GAINERA, URA BEROTZEKO BEHAR DEN ENERGIAREN KOPURU HANDI BAT ERE AURREZTUKO DUZU.

AURRERAPENA

ZURE ETXEARENTZAT

TXORROTETAN URA AURREZTEKO TRESNAK JARRITA, UR GUTXIAGO KONTSUMITZEAZ GAIN, URTEAN 25 ETA 50 EURO BITARTEKO AURREZKIA LOR DEZAKEZU.



ZER DIRA URA AURREZTEKO TXORROTAK?

Ura aurrezteko txorrotek dutxatik edo harraskako txorrotatik ateratzen den ur-emaria gutxitzen dute, baina beren eraginkortasuna batere murriztu gabe. Printzipio xume bat dute oinarri: txorroteko irtengunearen diametroa txikituz gero, uraren presioa eta abiadura handitu egiten dira. Ura airearekin nahasteko tresna bat jarrita (atomizagailu arrunt bat izan daiteke), presio handiko ura edukiko dugu. Ura zurrusta mehe ugaritan irteten da, eta ondo garbitu ahal gara oso ur gutxirekin. Esaterako, 5 minutuko dutxa hartzean, minutuko 18 litro ur ateratzen badira, pertsona batek 90 litro erabiltzen ditu; minutuko 6 litro ur isurarazten duen atomizagailu bat jarritz gero, ordea, 30 litro bakarrik erabiliko ditu.

Praktikan, askotariko teknologiak erabiltzen dira. Emaria gutxitzen duten sistemek, esaterako, silikonazko pieza bat daukate. Piezaren sekzioa uraren banaketa-sareko presioaren arabera da. Presioa handitzen denean, silikonazko piezak sekzioa txikitzen du, eta alderantziz. Horrela, ur-emari beti berdina ziurtatzen da, ohikoa baino txikiagoa.

Ur edangarria banatzeko sareko emariaren presioak aldaketa handiak izaten ditu, instalazioaren altueraren arabera, eraikinaren kokapenaren arabera eta abar. Ura aurrezteko txorrotak jartzerakoan, garrantzi handikoa da presioa kontuan izatea.



MEZUA BOTILA BARRUAN



zergatik ekin?

Gorputzaren irazkinak eramateko ur edangarria erabiltzea lurzorua zetazko zapiekin garbitzearen parekoa da. Beraz, komuneko ur-kontsumoa gutxitzen duten jarduera guztiek gure baliabideak zentzuz erabiltzen laguntzen dute.

EKINTZA:

ONDO KONTROLATU KOMUNA

- ⇒ Sistema erraz baten bidez, etxeko komun-ontzian erabiltzen duzun ur kopurua gutxitu ahal duzu: jarri tanga barruan urez betetako botila bat, ondo itxita eta mekanismoaren funtzionamendua ez eragozteko moduan.
- ⇒ Komun-ontzia ez da zakarrontzia. Beraz, ez bota zigarro-puntarik, kotoirik, konpresarik, oliorik edo produktu kutsatzailerik. Komuneko zuloa tratatzeaz gain, uren arazketa oztopa dezakete. Hodiak libratzeko produktuak ere kutsatzaileak izan daitezke.
- ⇒ Zoaz komunerako gauzak saltzen dituen denda batera eta galdetu ura aurrezten duten tanga-modeloez. Mota askotakoak daude salgai.

AURRERAPENA

LURRARENTZAT

KATETIK TIRATZEN DUGUN BAKOITZEAN —ETA ASKOTAN EGITEN DUGU HORI—, 10 LITRO UR INGURU GASTATZEN DITUGU. URA URRIA DEN SASOJETAN, KOMUNA ONDO KONTROLATUTA EDUKITZEA OSO LAGUNGARRIA IZAN DAITEKE UR-MURRIZKETAK SAIHESTEKO.

AURRERAPENA

ZURE ETXEARENTZAT

BIZI ZAREN LEKUAN URAREN PREZIOA GARESTIA BADA, KOMUNA BEHAR BEZALA ERABILIZ AURREZTUKO DUZUN URARI ESKER, ASKOZ GUTXIAGO ORDAINDUKO DUZU URAREN FAKTURAN



KOMUNA: ASKOZ ERAGINKORRAGOA IZAN DAITEKEEN ASMAKUNTZA BITXIA

Industriaren adar batek gero eta ur gehiago aurrezten dituzten komun-ontziak diseinatzen ditu. Erabiltzen den teknologia erraza da, kontsumo gutxiko garbigailuetan erabiltzen dena baino askoz ere sinpleagoa. Ura aurrezten duten bi komun-ontzi mota nagusi daude merkatuan: tekla bikoitzeakoak eta nahi denean gelditzeakoak. Lehenengoen kasuan, erabiltzaileak bi tekla ditu aukeran: tanga osorik husten duena eta ur-kopuru txiki bat bakarrik husten duena. Urak eraman beharrekoaren arabera, bata edo bestea sakatzen du. Bigarrenen kasuan, deskargatzen den ur kopurua nahierara erregulatzen da, botoi baten bidez.

Baina are urrunago joan daiteke: dagoeneko, enpresa batzuek eskaintzen dituzten komun-ontziek xurgatze pneumatikoaren bidez arrastatzen dituzte irazkinak, ez uraren edo grabitatearen indarraren bidez, eta aldi bakoitzean ur litro bat baino ez dute erabiltzen. Hala ere, sistema hori eraikin osoan instalatu behar da.

Tarteko irtenbide bat ere badago: etxe barruan ura birziklatzeko zirkuituak. Dutxan edo konketan erabilitako ura tanga batean biltzen da eta komun-ontziko irazkinak eramateko erabiltzen da, ur edangarriaren ordez.



HOTZ ETA BETETA



zergatik ekin?

Espainiako Estatuan ia etxe guztietan arropa-garbigailua dago, eta familien %26k ontzi-garbigailua daukate. Bi aparatuek, batez beste, egunean 50 litro ur kontsumitzen dituzte familia bakoitzeko, kontsumitzen den ur guztiaren hamarrena gutxi gorabehera. Uraren eta energiaren kontsumo hori murriztea ezinbestekoa da etxeko ur-gastua gutxitzeko.

EKINTZA:

UR HOTZEZ GARBITU, GARBIGAILUA GORAINO BETETA ETA XABOI GUTXIREKIN

- ⇒ Ez erabili garbigailuak erdi beteta: abian jarri baino lehen, arropaz edo ontziz bete-beteta egon arte itxaron.
- ⇒ Garbiketa-programa laburrak erabili beti. Segur aski, erabili ohi duzuna baino askoz ere laburragoa den programa batekin arropa orain bezain garbi geldituko zaizu. Egin proba batzuk programarik egokiena aurkitu arte.
- ⇒ Jaitsi garbiketaren temperatura eta erabil ezazu ontzietan adierazitako garbigarri kopurua. Horrela jokatuz gero, ura, energia eta dirua aurreztuko dituzu, eta garbiketaren emaitzak berdintsuak izango dira. Horrela ere arropa eta ontziak garbi-garbi gelditzen dira eta, gainera, gehiago irauten dute.

AURRERAPENA

LURRARENTZAT

GARBIGAILUEN ERAGINKORTASUNA HOBETZEN BADUZU, AURREZKI HANDIA LOR DEZAKEZU: ETXEAN KONTSUMITZEN DUZUEN UR GUZTIAREN %5 INGURU. HORRELA, ZURE HERRIA UR EDANGARRIZ HORNITZEKO SEGURTASUN-TARTEA HANDITZEN LAGUNDUKO DUZU.

AURRERAPENA

ZURE ETXEARENTZAT

UR, ENERGIA ETA GARBIGARRI GUTXIAGO KONTSUMITUZ, DIRUA AURREZTUKO DUZU ETA, GAINERA, ZURE JANTZI ETA ONTZIEK GEHIAGO IRAUNGO DUTE UR HOTZEZ ETA DETERGENTE GUTXIAGOREKIN GARBITZEN BADITUZU.

GARBIGAILUAK: TEKNOLOGIA AURRERATUA ALA SEN ONA?

Garbigailurik berriek askotariko osagarri teknologikoak daukate: logika difusoko programak, detergente-sentsoreak, ur-jarioa automatikoki eteten duten segurtasun-sistemak eta abar. Teknologia hori guztia bi hitzetan laburtzeko, garbigailuak gero eta adimendunagoak direla esan dezakegu. Esaterako, logika difusoko programek makinan sartutako arropa kopuruaren arabera ur-kontsumoa automatikoki erregulatzen duten aparatu batzuk daukate. Beste aurrerapen batzuk xumeagoak dira: ura arroparen gainera isurtzeko era berriak edo garbitutako arropa zentrifugatze sistema berriak, besteak beste.

Horren ondorioz, gaur egungo garbigailuak duela 25 urtekoak baino konplexuagoak dira eta gehiago aurrezten dute. Egindako kalkuluaren arabera, horrelako teknologiak erabiltzen hasi direnetik, izugarri gutxitu dira energian kontsumitutako kilowattak eta erabilitako ur litroak: 5 kg arropa zuri 90 gradutan garbitzeko, esaterako, 3 kwh eta 150 litro kontsumitzen ziren 1973an, eta 1,5 / 1 kwh eta 55 litro gaur egun.

Garbigailu bitermikoak ere garrantzi handiko aurrerapena dira. Bi ur-hartune daukate, bata ur hotzerako eta bestea gasezko berogailutik datorren ur berorako. Ura berotzeko elektrizitaterik erabiltzen ez dutenez, horrelako garbigailuek energia asko aurrezten dute.



EURIA ITSASOA BAINO HOBEA



zergatik ekin?

Gorputza garbitzeko ohiturek onura handiak ekartzen dizkiote gure osasunari. Dena dela, ohitura horietako batzuk aldatzen baditugu, mesede handia egingo diegu Lurrari eta gure etxeari. Esaterako, zentzuzko aukera egin dezakegu (dutxa hartzea), ura xahutzen duen beste baten ordean (bainua hartzea). Hortzak edo eskuak garbitzean ere, gehiago aurrezteko moduan joka dezakegu.

EKINTZA:

AURREZTU URA GORPUTZA GARBITZEAN

- ⇒ Erabili dutxa garbitzeko (30-40 litro), eta bainua erlaxatzeko soilik (100-130 litro).
- ⇒ Laburtu dutxa azpian txorrota zabalik ematen duzun denbora. Xaboitzen zaren bitartean, itxi txorrota, eta ez egon denbora gehiegi ur-zurrustaren azpian.
- ⇒ Hortzak garbitu edo bizarra egiten duzun bitartean, behar-beharrezkoa duzunean soilik ireki txorrota.
- ⇒ Xaboi gehiegi erabili arren, ez gara garbiago geratuko. Hondakin gehiago sortu besterik ez dugu egiten, eta, gainera, xaboi gehiegiak kalte egin diezaioke gure larruazalari.

AURRERAPENA

LURRARENTZAT

DUTXAREN ORDEZ BAINUA HARTZEAK ETA KONKETA NEURRIZ ERABILTZEAK URA BEROTZEKO BEHAR DEN ENERGIA AURREZTEA DAKAR ETA, HORRENBESTEZ, ENERGIA HORI SORTZEKO BEHARREZKOAK DIREN IKATZA, PETROLIOAREN DERIBATUAK EDO ERREGAI NUKLEARRA ERE AURREZTUKO DITUGU.

AURRERAPENA

ZURE ETXEARENTZAT

BAINATU BEHARREAN DUTXA AZKARRA HARTZEN BADUGU, 100 LITRO UR BAINO GEHIAGO AURREZ DITZAKEGU. DUTXAN DENBORA LABURRAGOA EMANEZ ERE URA AURREZTEN DUGU (GUTXI GORABEHERA, MINUTUKO 10 ETA 20 LITRO BITARTEAN).

BAINUGELAREN JATORRIA

Bainutegiak egiptoarren garaian sortu ziren, baina oso denbora luzean eraikin publikoak izan dira. Jendea hara joaten zen bere higieena zaintzera eta komunitateko beste kide batzuekin harremanetan jartzera. Orduz geroztik, ia kultura guztietan izan dira horrelako eraikin eta jarduerak.

Europan, XVII. mendean, sendagileak norberaren gorputza egunero apur bat garbitzea gomendatzen hasi ziren. Gutxienez eskuak eta aurpegia garbitzeko eskatzen zioten jendeari —gaur egungo konketaren aurrekaria oraindik ere etxe batzuetan ikus daitekeen garbiontzia da—. Hortik aurrera, lehen bainuontziak sortzen hasi ziren, baina ez zuten arrakasta handirik izan gizartean. Horren erakusgarri, XIX. mendean oso etxe gutxitan zeukaten bainuontzia. XX. mendean hasi zen etxe guztietara zabaltzen.

Dutxa betiko bainuaren aldaera bat da eta, gaur egun, beraren ordezkio ohikoa. Etxeetan leku nahikorik ez dagoenez eta gure gizartean beti presaka ibiltzen garenez gero, bainugelako osagai hori orokortu egin da. Bainuontzia baino askoz ere erabilgarriagoa da eta ura eta energia aurrezteko ahalbidetzen du.



APUR BAT ASKI DA



zergatik ekin?

Antzina, jendeak xaboi mota bakarra erabiltzen zuen etxe osoa garbitzeko, ozpin apur bat gehituta. Gaur egun, gure etxeetan ezin konta ahala garbigarri ditugu: altzariak garbitzekoak, zoruari distira ematekoak, zura tratatzekoak, ontzietarako xaboi likidoa eta beste. Produktu horiek kaltegarriak dira ingurumenarentzat, eta batzuek gai toxikoak dauzkate.

EKINTZA:

AURREZTU ESPAZIOA GARBIKETA-TRESNEN ARMAIRUAN

- ⇒ Erosi aurretik, arretaz irakurri garbiketa-produktuen etiketak, eta produktu toxikorik edo ingurumenarentzako osagai arriskutsurik ez daukatenak aukeratu.
- ⇒ Murriztu garbiketa-produktuen kontsumoa: egin ohi duzuna egiten jarraitu, baina produktu bakoitzetik kopuru txikiagoa erabiliz. Aztertu emaitzak eta ikusiko duzu xaboiak dirudien baino gehiago irauten duela.
- ⇒ Gogoan izan produktu horiek ezin dituzula zaramaren poltsara bota. Toxikoak izan daitezkeen produktuen ontzi eta hondakinak garbiguneetan utzi behar dituzu.

AURRERAPENA

LURRARENTZAT

ETXEAN URETARA HORRELAKO
 PRODUKTURIK ISURTZEN EZ BADUGU,
 IBAIETAKO ETA ITSASOKO KUTSADURA
 GUTXITU ETA UR-ARAZTEGIETAKO LANA
 ERRAZTUKO DUGU.

AURRERAPENA

ZURE ETXEARENTZAT

ERABILTZEN DITUGUN
 PRODUKTUEN KOPURUA ETA
 KANTITATEA GUTXITZEN
 BADITUGU, "GARBIKETAREN
 FAKTURA" MERKATUKO DUGU
 ETA ETXeko TXIKIENEK EZ DUTE
 HORRELAKO LIKIDOAK
 IRENSTEKO ARRISKURIK
 IZANGO.

GURE ETXEKO BILTEGI KIMIKOA

Etxean garbiketa-produktuak edukitzeak gure bizitokian substantzia kimiko ugari edukitzea dakar. Gehienak arrisku gutxikoak dira, baina, behar bezala deuseztatzen ez badira, produktu kimikoen bilduma horretako gai batzuk ingurumenarentzat arriskutsuak eta osasunarentzat toxikoak izan daitezke.

Hona hemen arriskutsuak izan daitezkeen substantzietako batzuk:

Amoniakoa Azetaldehido
(desinfektagarriak, leungarriak eta lixibak)
Bentzenoa edo bentzola
(disolbatzaileak eta desinfektagarriak)
Formola (labe-garbigarriak eta usain-kentzaileak)
Lindanoa (intsektizidak eta zura babestekoak)
Merkurioa (pilak eta koloratzaileak)
Metileno kloruroa (metal-garbigarriak)
Soda kaustikoa (libragarriak)
Xilenoa (pinturak eta bernizak)
Organokloratuak (desinfektagarriak, disolbatzaileak eta orban-kentzekoak)



KORROSIBOA



SUKOIA



INGURUMENARENTZAT
ARRISKUTSUA



IRRITANTE



TÓXICO



ONENAK, BERTOKOAK



zergatik ekin?

Lorategiak eta lore-ontziak etengabe ureztatzeko erabiltzen dugun uraren kopuru handi bat alferrikakoa zaie landareei. Lorategiak eta lore-ontziak ekosistema txikiak baino ez dira, euri kopuru eta temperatura jakin batera egokituak. Klima hezeetako landare exotikoek gure lurraldera moldatu direnek baino askoz ere ur gehiago behar dute bizitzeko. Lorategia zein lore-ontziak badituzu, ideia interesgarri batzuk aurkituko dituzu hemen.

EKINTZA:

URA, NEURRI-NEURRIAN

- ⇒ Murriztu eta egokitu ureztapena landareen benetako beharretara. Hobe da iluntzean edo egunsentian ureztatzea, eta ez berorik handieneko orduetan, ura lurrin ez dadin. Nolanahi ere, gogoan izan mahukaz ureztatzea ur gehiago alferrik gastatzeko modua dela.
- ⇒ Espezie autoktonoak jarri exotikoen ordez (hala ere, espezie exotiko batzuek oso ur gutxi behar dute, hala nola kaktusak).
- ⇒ Zure lorategian ongarririk edo desinfektagarriak erabili aurretik, informa zaituz ingurumenari egin ahal dioten kalteaz. Gero eta errazagoa da desinfektagarri ekologikoak eta ongarririk naturalak erabiltzea (konposta eta kafearen hondarrak, esaterako).

AURRERAPENA

LURRARENTZAT

ESPEZIE AUTOKTONOAK AUKERATZEN
BADITUZU, UR GUTXIAGO KONTSUMITZEAZ
GAIN, ZURE LURRALDEKO BALIO EKOLOGIKOAK
KONTSERBATZEN ETA BERTAKO
BIODIBERTSITATEA HANDITZEN LAGUNDUKO
DUZU.

AURRERAPENA

ZURE ETXEARENTZAT

LORATEGIAN SOROPIL
KOMERTZIALAREN ORDEZ ESPEZIE
AUTOKTONOAK LANDATZEN
BADITUZU, ORAIN ERABILTZEN
DUZUN URAREN ERDIA BAINO
GUTXIAGO BEHARKO DUZU
LORATEGIA UREZTATZEKO.




NOLA ERABILTZEN DUTE URA LANDAREEK?

Gure planteak "Ura" dei zitekeen, "Lurra" deitu beharrean. Izan ere, lurrazalaren parterik handiena likido horretaz estalita dago eta bertan bizi diren organismo guztiek elementu horren ehuneko handi bat daukate. Hala ere, bizitzeko baliagarria den ura, "ur geza", oso ondasun preziatua da, eta, horregatik, izaki bizidun askok urik ez galtzeko sistemak dituzte.

Landareek ura behar dute elikagaiak lurretik hartzeko, beren bizi-funtzioak egiteko eta zutik egoteko. Landareen osieran, urak portzentaje handia hartzen du. Bizirik iraungo badute, landareek ezinbestekoa dute gutxieneko erreserba batzuk atxikitzea. Basamortuko landareek arantzak daukate hostoen ordez, berotik babesteko, eta ura biltzen dute zurtoinean. Geruza lodi batek eguzkitik babesten du zurtoina, ura gal ez dadin. Landare tropikalek, ordea, behar beste ur daukate beti, eta ez dute horrelako babesen premiarik.

Oro har, klima zenbat eta lehorragoa izan, orduan eta babes-sistema gehiago dituzte landareek: hosto txikiak, gogorrak edo iledunak, arantzak, hostoen gaineko olio aromatizatzaileak eta abar. Sistema horiei esker, landareek hobeto baliatzen dute lor dezaketen ura. Gure "ekosistema txikia" sortzerakoan, oso lagungarria da horrelako sistemen berri jakitea.





OHARRAK

